

## IKASTURTEKO LEHENENGO BILERA PARTZUERGOAREKIN

**Atzo, hilak 16, ikasturte honetako eta gerente berriarekin lehenengo bilera** izan genuen Haurreskolak Partzuergoarekin, **Kudeaketako langileen birbaremazioa eta Hezitzaile ordezkoen izen-emate eta baremazio/birbaremazioak eta hurrengo mahai negoziatzaileen data eta egutegi proposamenarekin.**

Gerentearen hitzetan, izen-emate eta baremazioen irizpideak **finkatzea da helburua** eta behin hori eginda, **urtero egutegia eta prozedura zehaztuko dituen deialdiak egingo liratezke.**

Irizpideen gaineko lanketa egin dugu, prozesuen egutegirik gabe.

- **Hezitzaileen izen-emate eta baremazio/birbaremazioak:** Urte asko dira **LAB sindikatuak** Haurreskolak Partzuergoak erabiltzen duen **zerrendak kudeatzeko eredu** salatzen duela. Hori dela eta, LAB sindikatuak Hezkuntza Sailean erabiltzen den **“Ordezkagunea”** aplikazioa LABek sinatu zuen ordezkoen araudira egokitu eta gurean ere **martxan jartzea eskatu zuen** beste behin ere. Gerenteak konpromisoa hartu du Zuzendaritza Batzordean horren inguruko erabaki bat hartzeko eta ez bada onartzen, LABek eskatu duen moduan deialdian dauden zonaldeen gaineko hausnarketa bat egiteko.
- **Kudeaketako langileen birbaremazioa:** **Besteak beste, Hiru zerrenda sortuko dira Goi mailako teknikarien kidegoa, Kudeaketako teknikarien kidegoa eta Administrarien kidegoa.** Kudeaketako zerrendak ere irekitzea eskatu badugu ez dela beharrezkoa erantzun zigun gerenteak.

Hau horrela izanik, **oraindik ez dakigu noiz egingo diren deialdiak** ezta zein izango den izen-ematea edota baremazioa egiteko prozedura ere. Izan ere, prozesu hau egiteko **prestatzen ari diren aplikatibo berria oraindik ez dute prest.**

Gai honetaz gain, **LAB sindikatuak** hurrengo mahai negoziatzaileei begira eskaerak egin zituen, besteak beste, **egin zituen egutegiari dagokionez:**

21/01/31: **Kudeaketako langileen lanpostuen zerrenda.** Premiaz jorratzeke dagoen gaia, Partzuergoak **LABek irabazi zuen sententzia bete behar baitu.**

22/02/28: **Hezitzaileen lanpostuen zerrenda.**

22/03/31: **Lan hitzarmenaren negoziazioa berreskuratzea.**

Lan postuen zerredaren gaiari dagokionez, modu globalean hartu behar dela esan genuen.

- **Enplegu publikoan behin behinekotasun tasa jaisteko legea baliatuz,** plazak estabilizatzeke salbuespeneko prozesua martxan jartzea. Azterketarik gabeko **merituen lehiaketa egitea** kudeaketako langileentzat, zein hezitzaileentzat, irakaskuntza publikoko gainontzeko laborekin egitea erabaki duen bezala. **Deialdiaren nondik norakoak negoziatzeko eskaera** ere egin diogu.
- Horretarako, ezinbestekoa izango da kudeaketako langileen eta hezitzaileen plazak identifikatu, **Lanpostuen Zerrendak ordenatu eta gaur egungo egoerara egokitzea.**
- **Finkoen Leku aldatze lehiaketa** ere prozesu hauekin batera tratatzeko gaia dela.

Gerenteak Hezkuntza saila horretan ari dela eta gauzak ordenatu nahi dituela esan zigun. Beraz, ikusten duzuen moduan ikasturte honetan **aurrera eramateko erronka ederrak ditugu.** Haur hezkuntzako lehenengo ziklotik hasita, euskal eskola **publiko komunitarioa iruten jarraituko dugu.**